

Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak Iosu Zabala doktorea izendatu du unibertsitateko errektore

2006/09/26

Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak Iosu Zabala doktorea izendatu du unibertsitateko errektore Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak **Fagor** Etxetresna Elektrikoetako Negozio gerentea den Iosu Zabala Iturralde doktorea izendatu du Unibertsitateko errektore.

Izendapena aho batez hartu du Kontseilu Errektoreak, eta azaroan gauzatuk oda, karguan hastearekin batera.

Kontseilu Errektoreak irtengo den errektorearen eta sartuko denaren arteko elkarbizitzarako aldi bat aurreikusi du, azarotik otsailera bitartean, data horretan hartuko baitu erretiroa Unibertsitateko oraingo errektore **Inaxio Oliverik**.

Kooperatiben munduari buruzko ezagutza sakona, ikerketa arloan eta Mondragon Unibertsitateko oinarritzako bi ezagutza arlotan, teknologien eta enpresen kudeaketaren gaineko jakintza, faktore erabakigarriak izan dira izendapenerako, zeina Kontseilu Errektoreak aho batez onartu duen.

Curriculum

Iosu Zabalak 53 urte ditu, ezkontuta dago eta 3 alabaren aita da, Donostiako EUITn Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin zituen eta ondoren Tolosako (Frantzia) Paul Sabatier unibertsitatean jarraitu zuen ikasten, lehendabizi Elektronika, Elektroteknia eta Automatikan Maitrise titulua lortu arte eta ondoren Diplôme d'Etudes Approfondies eskuratu arte. Halaber, aipatu unibertsitateko Elektronika, Elektroteknia eta Automatikako doktorea da, Industria Ingeniaritzako eta Doktore tituluak Estatuan baliozkotuta.

Bere **zeregin profesionalak** oso lotura estua izan du kooperatiben munduarekin, bereziki teknologiaren, ikerketaren eta kudeaketaren arloetan. Horrenbestez, Robotikako Departamentuko burua (1978-85) eta Diseinu eta Produkzioko Teknologien Dibisioko zuzendaria (1986-99) izan zen Ikerlan teknologi zentroan, eta ondoren Fagor Etxetresna Elektrikoetan jarraitu du bere ibilbide profesionala, Negozio gerente lanetan. Halaber, Mondragon Unibertsitateko Komite Akademikoan parte-hartu du

